

## **LANA ERI**

(Lau gertaldiko antzerkia - 1965)

**Jokalariak** : *Andre* : Mutil eder bat, 30 bat urte.

*Nausia* : Jaun bat, 60 bat urte.

*Dama* : Andere bat, 60 bat urte.

*Erretora* : 40-50 bat urte.

*Pantzez* : Idor, 50 bat urte.

*Arrantzari* : Edozoin, 50 bat urte.

*Mayi* : Pollita, zintzoa, 22 urte.

*Ama* : 50 bat urte, edozoin.

*Mirikua* : 50 bat urte, edozoin.

*Roxali* : 20 bat urte, edozoin.

*Luixa* : 20 bat urte, edozoin.

Beste batzu agertzen direnak, mintzatu gabe.

### LEHEN GERTALDIA

**Joka-lekua** : Ur hegi bat. Ezker aldetik, berro baten aintzinean, arrantzari bat arrantzan ari. Beste jokalariak mintza ditela berro gibeletik edo sahetsetik. Roxali agertzen da neskatz lagun batekin.

ROXALI . - Lotzen dea arrainik ?

ARRANTZARI . - Ez nik nahi nukarik.

ROXALI . - Zer zinuke nahi harrapatu amu muturrean ?

ARRANTZARI . - Dena den, ean norendako dudan arrantza... Zuentzat balitz hoberena liteke uretik atera banitza bi mutil eder.

ROXALI . - Eta, zuretzat balitz ?

ARRANTZARI . - Neretzat ? Zu bezalako bat bakarra aski litzaiket.

ROXALI . - Ez du irriskurik zure amuari ausiki eginen diotala... Eskaintzen duzun apasta haragi zaharregitik baita.

ARRANTZARI . - A !... Banaukan beldurra ! Bainan, ez badaiteke arrantza amesten dena, ametsetan arrantzatzea haizu ahal da.

ROXALI . - Ez, ez da haizu... Goizean jaun erretorak predikatua du pentsamendu gaxtoak behar direla burutik baztertu.

ARRANTZARI . - Bai, goizean, jaun erreterak predikatua du ere, gazteak begira ditela galbidetarik. Nun zabilzate zuek oihan bazter huntan, ilunari buruz ?

ROXALI . - Iluna oraino urrun da... Bezperetan izan gira jaun erreterak galdatu bezala. Ez baitzaitugu zu han ikusi, galbiderat jinak ginen, segur zu hemen harrapatuko zintugula.

ARRANTZARI . - Beharrik jaun erreterak ez daki nun eta nola ibiltzen zaizkion bere neskatz kantariak. Haren ustez, freskura hartzerat etortzen zirezte bezperen ondotik arbol-pe huntarat.

ROXALI . - Eta, zure ustez, zertarat etortzen gira hunarat ?

ARRANTZARI . - Ez dakit, bainan ni segur ez zireztela jiten egur eihar biltzerat.

ROXALI . - Beharrik zuretzat !

ARRANTZARI . - Zer naukazue ni, suko egurtzat ?

ROXALI . - Ba, su pizteko hauta zira-ta...

ARRANTZARI . - Bon, milesker.

ROXALI . - *(Lagunari)* Te, horra Mayi heldu. *(Oihuz)* U... u... Mayi, mugi hadi. *(Mayi agertzen da)* Ikusi duna Luixa ?

MAYI . - Ez.

ROXALI . - Etorriko ahal dun bederen ?

MAYI . - Ba, leihotik oihu egina zaitan heldu dela berehala... Aintzina joaiteko... Gibeletik harrapatuko gaituela.

ROXALI . - Mugitu behar giniken, bizikleta kurtsak ez huts egiteko. Mixel eta Kleman kurtsetan jokatzekoak ditun, eta errana ziotegun hor izanen girela, patarraren buruan, hek iragaitean. Laneko lagunak ditinagu-ta, behar ditinagu eskuz eta ahoz lagundu kurtsaren irabazten.

MAYI . - Barkatuko dautazue, bainan ni ez naiz jiten ahal zuekin.

ROXALI . - Ez jiten ahal ? Zertako ?

MAYI . - Ez dautzuet egun salatu nahi zertako. Ondotik beharbada.

ROXALI . - Ez dun bederen hire anaia ttipia gaizkiago ?

MAYI . - Gaizkiago, ez. Mirikuak zer erran so gagozin. Bihotza omen din eri, eta beharbada operatzeko izanen omen dun.

ROXALI . - Segur nun, hik, mutil zonbait dunala esperantza. Eta gu, uzten gaitun, harekin joaiteko.

MAYI . - Ez din balio "pentsa-pents"-ka aritzea. Zoazte hortik. Ni hemen egonen nun eta hura laster jinen baita, igorriko dinat zuen aurkitzerat.

ROXALI . - Bon, bon, ontsa dun. Gorde zan ongi hire segetua, hi, Mari mixterio.

MAYI . - *(Irriz)* Eta hik, sofri hor, Roxali "kurios pint-erdi".

ROXALI . - Sarri, gurekin izanen haiz zineman bederen ?

MAYI . - Ba, zinemarat joaiteko xedea dinat.

ROXALI . - Bon, sarri artio beraz.

MAYI . - Ba, sarri artio eta mugi zaitetze hortik. *(Jalitzen dira... Mayi jartzen da eta letra bat irakurtzen du... Bere burua apaintzen... Ezagun du norbaiten aiduru dagola)*

LUIXA . - *(Agertuz)* Zer ari zira bakarrik hemen ? Nun dira lagunak ?

MAYI . - O Luixa... Kontent niz hemen biak bakarrik baigira. Lagunak joanak ditugu aintzinat eta zurekin buruz buru mintzatu nahia nintzen.

LUIXA . - Zer zinuen erraiteko ?

MAYI . - So egizu. Irakur-zazu errezebitu dudan letra hau.

LUIXA . - (*Irakurtzen du ixilik*) Jes ! Andre gure nausiaren semeak ? Bainan Andrek nolaz ezagutzen zaitu zu ?

MAYI . - Ikusi nau ba aski maiz eta mintzatu ere, bere aitaren bulegoan daktilo naizenaz geroz.

LUIXA . - Segur zirea harena dela izkirioa ?

MAYI . - Ba, ba, segur. Ezagutzen dut Andren izkirioa. Aski maiz eman baitaut lana mekanikan jotzeko.

LUIXA . - (*Emeki irakurtuz*) "Nahi zaitut segeretuki eta buruz buru baitezpada mintzatu igandean ; ur hegiko jar-tokian izanen naiz lauak et-erditako. Ez beldur izan. Ez da zuretzat deus gaxtorik. Onik baizik. Bihotzaren barnetikako zerbait badautzut erraiteko. Pentsatzen dut onartuko duzula ene gomita. Igande artio." Jes ! Iduri luke zuretzat amodiotan dela. Kasu emazu haatik. Badakizu nola diren handien seme horiek. Gu bezalakoaz nahi dute baliatu, gero ondotik erortzerat uzteko.

MAYI . - Ez zaitela hortaz kexa. Ez naiz aski xoroa nolanahizka nere konfientzia emateko.

LUIXA . - Edo beharbada greba nahi dautzu aipatu, eta, greban girenak, nahi gintuzke bederazka ikusi eta lanerat bildu, grebalarien arteko lokarria hausteko.

MAYI . - Holakorik balitz, nik ene eginbidea beteko dut. Ez niz lagunetarik berexiko.

LUIXA . - O, zer erranen ote dautzu ? Berantetsia egonen naiz, zure aiduru.

MAYI . - Ba, nik ere nahiago nuke jakinean banintz. Bihotza pil-pil ari zait. Zato sarri lehenbailehen, ni aurkitzerat. Denak salatuko dauzkizut.

LUIXA . - Bon, gero artio beraz, Mayi. (*Jalitzen da*)

MAYI . - Ba, gero artio, Luixa. (*Bere papera eskuan pentsaketa dago. Erretora agertzen da begiak otoitzeko liburuan. Mayi gordetzen zaio*)

ERRETORA . - (*Arrantzariari mintzo*) Nor da harrapatuena ? Arraina ala zu ?

ARRANTZARI . - Ez ni eta ez arraina, bainan zu zira harrapatuena, jaun erretora.

ERRETORA . - Zertako ni ?

ARRANTZARI . - Preseski, nere baitan egina nuen, egun atzemanen nituen amorroinak, behar nituela zuri eman. Hortarik ikus-azu nor izanen den harrapatuena, nik ez badut hemen deus biltzen.

ERRETORA . - Bon, neri amorroinen ekartzeko ideia hori, ez naiz segur. Bainan segur bainaiz atzemanen dituzula, gomitatzen zaitut sarri haien elgarrekin jaterat.

ARRANTZARI . - Bon, jaun erretora, ongi da. Huntan ere eginen dugu : Apezak azken hitza bere. (*Andre agertzen da. Mayik egiten dio keinu ez salatzeko hura han dela*)

ERRETORA . - Te, Andre, nun zabilta hemen ?

ANDRE . - Oto kolpe batez jina nintzen onddorik ote zen ikusterat.

ERRETORA . - (*Duda-mudatuz*) Onddoak ? Baditake. Ba, ba, baditake. Errazu Andre, ta... zuek nausiek, zer diozue zuen lantegiko grebaz ?

ANDRE . - Jaun erretora, ez niz gure lantegiko nausia, bainan ene aita arras kexu da langilen kontra.

ERRETORA . - Ez ote daiteke, zerbait moldez, zuzendu, zure aitak langilekin duen makurbidea ?

ANDRE . - Greba bururatzea arras aise da. Aski da largatzea langileri galdatzen dutena.

ERRETORA . - Bainan, geroari buruz, nausi langileak berdin gelditzen zirezte : Gatu eta zakur bezala. Ez duzueia, zuen artean egiten ahal iraunkor izanen den zerbait antolamendu ?

ANDRE . - Bai, aspaldi horixe gogoan nago. Nere ametsa liteke hobeki elgarri lotzea, gure lantegian, nausi-langileen interesak. Bainan dakizun bezala, oraiko egunean, aitak du manatzen lantegia eta ez nik.

ERRETORA . - Plazer dut entzuten zu hola mintzatzen. Zato enekin. Biak ibiliko gira onddoketan, hasi solasak segituz.

ANDRE . - Barkatuko duzu, jaun erretora, bainan ez dut uste onddo berak maite ditugun.

ERRETORA . - A ! Erranen dautzut zoin den enetzat onddorik finena : Ez da papuna, ez eta ere onddo beltza, bainan onddo gorringoa, bere oinetako xuri eta xapel gorri denteldunarekin.

ANDRE . - (*Irriz*) Ene onddoak aldiz ez dauka batere xapelik.

ERRETORA . - Xapelik gabeko onddoa ? Eta onddo ona ? Ez dut uste holakorik baditakela oihan huntan.

ANDRE . - Ba, jaun erretora, bat segurik bada, nere begiez ikusia baitut.

ERRETORA . - A ! A ! Eta nolako itxura du ?

ANDRE . - Zera, jaun erretora, ez du xapelik bainan arropa badu.

ERRETORA . - Arropa ?

ANDRE . - Ba, eta gainerat ez du zango bakar bat, bainan baditu bi zango.

ERRETORA . - Arropa eta bi zango ? (*Betbetan konprenitzen du. Irri karkailaz lotzen da*) A ! Ba, banaiz. Zer biligarroa zu, Andre ! Zer biligarroa !

ANDRE . - Eta biligarroak oihana maite, jaun erretora.

ERRETORA . - Bon, ongi da, adinean zira. (*Erdi irriz*) Haatik oihanean ibili gero jainko legean !

ANDRE . - Entseatuko gira, jaun erretora.

ERRETORA . - Bon, banoa beraz aintzinat bakarrik. (*Arrantzariri mintzo*) Eta zuk, atzeman duzuia amorroinik ?

ARRANTZARI . - Bat eta esperantza, jaun erretora.

ERRETORA . - Bon, partida ongi hasia duzu. Amorraina, hutsa baino, beste zerbaitekin hobea baita, ni beste zerbait haren bilarat noa.

ARRANTZARI . - Afal ondoko ttotta, jaun erretora, nik amorroin gehiago biltzen dutala, zuk onddo baino.

ERRETORA . - Bon, tenk, parioa egina. (*Jalitzen da. Mayi agertzen da. Andre hurbiltzen zaio*)

ANDRE . - Nahi duzuia etorri enekin otoraino ? Otoa hor dut bi urratsetan.

MAYI . - Zerbait baduzuia ototik hartzeko ?

ANDRE . - Ez, bainan, han jarririk, hobeki gintezkela iduritzen zait bi solasen egiteko.

MAYI . - Ez bazaizu nekegi, jauna, nahiago nituzke solasak hemen berean erabili.

ANDRE . - Ez da errex, Mayi, erraitea nik errango dutana. Huna bi hitzez. Zuretzat badauzkat bihotzeko sendimendu berezi batzu. Nahi zintuzket hobeki ezagutu, eta hortakotz, nahi nuke, ahal balitz, zurekin buruz buru ibili.

MAYI . - Jauna, badakizu nor naizen. Zure aitaren bulegoko daktilo xoil bat... Nere aita badakizu nor den : Langilen buruzagi nausia. Nik ez dut ikusten zeri buruz ibiliko naizen zurekin.

ANDRE . - Ez uste izan, Mayi, zurikerian eta zutaz baliatu nahiz, nabilala zure ondotik. Ene gogoetak funtsez eginik etorria naiz zure aurkitzerat. Badakit nor den zure aita, bai eta hura dela oraiko grebaren muntatzailea eta gidaria.

Badakit ere nere aitak zer pentsatzen duen zureaz. Bainan, guk gaztek, aiten bidetik behar ote dugu ibili edo guhauren bidetik ?

MAYI . - Nere laneko lagunak ikusten banaute zurekin jalitzen, zer behar dute pentsatu ? Eta segur naiz, hola abiatzen banaiz, aitak etxetik kanpo ezarriko nauela. Badakizu zu eta ni, bi mundu girela eta gure artean ez dela gurutzamenik.

ANDRE . - Ba, badakit nere aita dela kapitalaren nausia. Zure aita aldiz lanarena. Badakit ere kapitala eta lana, elgarrentzat herran, gure lantegian borroka ari direla. Bainan borroka hori ongi zautzua ? Borroka horrek behar ote du beti iraun ? Mayi, hainitzetan zure solasetarik, zilatu dut zure gogoaren argia. Badakit zure bihotzean sofritzen duzula oraiko lan moldetako makurbidez.

MAYI . - Ba, hori egia da, jauna. Eman zaite ene ordain. Zure aitarekin, egun guziz, lanean ari behar dut, bulego berean. Harenak entzuten ditut. Ondotik, etxerat-eta, ez nauke aitaren solasak aditu gabe. Eta bizia, hola bi burutarik tirakatua, ez da bizi bat.

ANDRE . - Konprenitzen zaitut. Zure sofrikarioak dira eneak. Orai lantegi gidaritzako ixtudioak bururatuak ditut. Laster aita ordainduko dut gure lantegian. Nahi nioke gure lantegiari beste begitarte bat eman. Ez dut, ene aitak bezala, bizia iragan nahi, langilekin borroka, bainan lan egin nahi nuke heiekin eskuz-esku. Iduritzen zait zurekin ezkonduz eta zure laguntzarekin, munta dezakegula hats berri bat luken lan moldea.

MAYI . - Xede ederrak dituzu, jauna. Bainan, zu eskola handietarik heldu zira. Nik aldiz, eskola guti daukat. Beldur naiz ez dezazun ni baitan kausi zure mailak galdatzen duen laguntzalea.

ANDRE . - Ene laguntzeko, ez dut behar emazte jakintsun bat, bainan bihotzdun bat eta nerekin bide egin nahi lukena, biez bat eginez, gu baino gorago den amets baten zerbitzari... Senar-emazten arteko amodio aberatsik ez baita, ez bada amodio hortarik fruitutzen bien artean sortu eta ondu duten lorerik.

MAYI . - Ba, ez dut ukatzen, holako ametsak ibiltzen ditudala nik ere ene baitan. Bainan, badakizu, jauna, bizi beharrak eta biziaren saminak laster mozten diozkate gure maileko jenderi gora-ametsen hegalak.

ANDRE . - Bai, hori egia da edozoin gizonentzat. Biziak izartzen ditu ametsak. Bainan ez da bizi ederrik, ametsez hazia baizik. Ez ote dugu biek amets bera : Lantegia bizi dadien kantuz eta ez borrokatuz ? Nahi duzua gure lantegiaren onetan, biek elgarri esku eman dezagun, bi bihotz ditugula elgartzan, amets beraren zerbitzari ?

MAYI . - Zure galdeari, jauna, ez dezaket berehala ihardets. Oraiko grebarekin ez naiz ausartatuko etxean aipatzerat ere, hemen ibili ditugun solasak... Gure aita, erotua, oihuka has bailiteke zertan zabilzan ene ondotik. Grebaz bestalde, jauna, ene anaia ttipia eri handi dut. Ez dakit harekin zer behar dugun ikusi.

ANDRE . - Ez dautzut, Mayi, errepusta berehala galdatzen. Har-zazu behar duzun astia zure gogoeten egiteko. Zure anaiarentzat zerbeit laguntza egin badezaket, gogotik hor kausituren nauzue zuen zerbitzuko.

MAYI . - Milesker, jauna.

ANDRE . - *(Eskua suharki tinkatuz)* Milesker, Mayi. Esperantza bihotzean urruntzen naiz zueganik. Galdatzen dautzutana da bakarrik, gure artean egon dadien egungo gure solaskatze hau.

MAYI . - Hitzemaiten dautzut.

ANDRE . - Bestaldi bat artio beraz, Mayi. *(Andre jalitzen da, eskuz polliki agurtuz. Mayi ere jalitzen da beste eskualde batetik)*

ARRANTZARI . - *(Bilatzen ditu bere arrantzako tresnak. Erdi xixtuz, erdi kantuz dio)*

Apasta nuen bota arrainak hartzeko

Ez bainakien arrainak zuen ausikiko

Ez ninduzun bakarra hemen lan hortako

Mundu huntan baduzu arrain mota frango.

*(Airea : Partitzeko tenorea)*

OIHALA

BIGARREN GERTALDIA

**Joka-lekua** : Langile etxeko edozoin barne.

*Mayi sartzen da sare bat eskuan.*

PANTZEZ . - Lantegiaren ondotik pasatu zirea ?

MAYI . - Ba, aita.

PANTZEZ . - Bazena deus mugimendurik ?

MAYI . - Ez aita, atea denak hetsiak dira. Ez da nehor han, lanean ari.

PANTZEZ . - Ta, nausiaren bulegoan seinale zena nehor ?

MAYI . - Nehor, leihoak hetsiak ziren.

PANTZEZ . - Urdeak ! *(Apur bat ixilik)*

AMA . - *(Agertuz)* Hor zirea, Mayi ? Ekarri dituzuia erremedioak ?

MAYI . - Ba, ama, hemen ditut denak. Mirikua ere ikusi dut. Erran daut apur baten buruan heldu dela.

AMA . - Berriz ere bihotzeko mina abiatu zaio. Otoi ekar-zkitzu usaiako ttintta horiek.

MAYI . - Berehala, ama. *(Apailatzen du edankia)*

PANTZEZ . - Ez dakit zer behar dugun ikusi haur horrekin.

AMA . - Atzo arratsean deliberatzekoa zuten beharko ote den operatu edo ez. Mirikuak laster argituko gaitu.

PANTZEZ . - A ! Ta holakoak beti guretzat dira !

AMA . - Ba, ba, penak eta kargak. Ez dakit zorrak nola behar ditugun ordaindu... Bereziki greba hunek oraino luzaz irauten badu.

PANTZEZ . - *(Bizi-bizia)* Ez ahal zira zu ere zinkurinaka ariko greba egiten dugulakoan !

AMA . - Jes, ez ote ditake egia aipa den bezala : Lana delarik, lan dugula bizitzen, eta oraino lanago greba delarik ?

PANTZEZ . - Bon, bainan oroit ez dela zinkurinekin saldarik ontzen.

MAYI . - *(Aitaren bizitasunaz asaldatur)* O aita !... *(Apur bat ixilik. Ama eta Mayi jalitzen dira. Atea jotzen dute)*

PANTZEZ . - Aintzinat. *(Agertzen da arrantzari)* To ! Hi hintzena ?

ARRANTZARI . - Ba. Heldu nuk lantegiari so bat emanik.

PANTZEZ . - Ta ? Lotu dea nehor lanari ?

ARRANTZARI . - Ez. Ez duk barnean arima bat ere. Bulegotako hoitarik zombait abiatuko ote ziren ninduan beldur. Bainan, orainokoan segurik, bulegoak ere hetsiak dituk.

PANTZEZ . - Hanbat gaxto greba hausle, nausien gibel milikarien. Ukamiloz eta hala beharrean makilaz ditiagu holakoak heziko.

ARRANTZARI . - Badakik, dudarik gabe, nausia arizan dela zombaiten buruz buru ikusten, gure artean nahaskeria pizteko ! Ta, bere sareak hedatzen dituela bereziki bulegotako enplegatueri.

PANTZEZ . - Ba, bazakik nun lot, bulegoan baititu bere xakurrik leialenak. Bainan ez dituk gutaz trufatuko. Esku xuri horieri erakutsiko diotegu nolakoak diren gure aztapar beltzak. Gure abantailetan parte hartu nahi dutenaz geroz, ez ote duk xuxen parte har dezaten ere gure sakrifiziotan ?

ARRANTZARI . - Haatik, nahi badugu lagunak gure alde fermu egon diton, baitezpadakoa duk gu, eta gure hurbilak, tinki atxikiak agert gaiten abiatu sailari.

PANTZEZ . - Argi den gauza duk hori. Ez ahal dik nehork hortaz arrangurarik ?

ANDRE . - Ez zakiat, ez zakiat.

PANTZEZ . - Zer erran nahi duk ? Zer dituk duda-muda horiek ?

ARRANTZARI . - Segur hiza ez duela nausiak hire alaba pixka bat biltzen hasia ?

PANTZEZ . - Gure Mayi ? Zer derasak ?

ARRANTZARI . - Zuen Mayi, ba. Ez dauka pitsik salatu ?

PANTZEZ . - Zer salatu ?

ARRANTZARI . - Ez dauka aipatu atzo nausiaren semearekin egin duen egonaldia ?

PANTZEZ . - Gure Mayi nausiaren semearekin ? Gezurra duk hori.

ARRANTZARI . - Egiaz nauk mintzo. Ene begiz ikusiak ditiat. Elgarrekin egon dituk, ez ustegabetarik, buruz buru eginik, bainan aintzinetik hitz harturik. Ez ginikek behar, hemen guk ibili solasean, kanporat berduratzalerik.

PANTZEZ . - Gure Mayi ? Ezin sinetsia diat.

ARRANTZARI . - Galde zok berari.

PANTZEZ . - Ba, eta berehala. *(Deituz)* Mayi, ean zato hunaraino.

MAYI . - *(Agertuz)* Zer nahi zinuen, aita ?

PANTZEZ . - Egia dea, Mayi, atzo arratsean, nausiaren semearekin buruz buru egon zirela ?

MAYI . - Ba, aita.

PANTZEZ . - Jakiten ahal duta zertan dabilan mutil hori zure ondolik ? *(Mayi ixilik... Arras kexu)* Zer dabila ? Greba hautsi nahiz zu lanerat bilduz ? Zertako ez dautazu pitsik salatu ? Zer dira manera horiek ? *(Atea joiten dute)* Aintzinat !

MIRIKUA . - Agur, jaun andereak.

PANTZEZ . - Agur, jaun mirikua.

MIRIKUA . - Bazauzte, ba ?

PANTZEZ . - Ba, jauna, ba.

MIRIKUA . - Ttipia hala-hala ?

MAYI . - Zato, jaun mirikua, oraintxet bulta txar bat ukana du.

MIRIKUA . - A ! A ! Bon ! *(Mayi eta mirikua jalitzen dira. Apur bat ixilik)*

ARRANTZARI . - Ni banihoak, to.

PANTZEZ . - Ez, hago hemen. Hola jakinen dituk hik ere gure haurraren azken berriak... Ezin jasan diat mutil zikin horren egitatea.

ARRANTZARI . - Beharbada gaizki egin diat hori salatzea hiri, bainan ezin egon nindian ixilik. Hori ikusiz geroz, halako opil bat banian bihotzean.

PANTZEZ . - Ongi egin duk mintzatzea. Gure artean, konfientziak irautekotz, gordekeriek behar ditek baztertu. Mayik deus ez salatzea zaitak handi eta penagarri, ez baita hori gibelsakelduna.

ARRANTZARI . - Nork zakik ? Behar bada ez hintuen sumindu nahi. Beharrena duk abisatua izan dadien eta ez dadien eror ihiztari horien saretarat. *(Apur bat ixilik... Agertzen dira ama eta mirikua)*

MIRIKUA . - Egon naiz miriku lagunekin. Haur hunek bihotza du sortzez gaizki formatua. Duela zonbait urte, ezin sendatua izanen zen, bainan orai, holakoak operatzen dituzte. Haatik, hortako joan beharko du Pariserat, eta gainerat, ez treinaz edo otoz bainan airekoz, ez dadin sobera akit bidean. Hor ikusi beharko dena da gastu handiak izanen direla. *(Apur bat ixilik)*

PANTZEZ . - Jauna, ez gira aberatsak, dakizun bezala, bainan behar baditugu ere etxeko mubleak saldu, gure haurraren salbatzeko, eginen dugu ahal dugun guzia.

MIRIKUA . - Ene aldetik, mintzatuko naiz behar den lekuan zueri laguntza egiteko. Eta berehala banoa airetako tenoren jakiterat. Sarri artio beraz.

PANTZEZ . - Ba, sarri artio, jaun mirikua, eta milesker. *(Jalitzen dira mirikua eta ama. Ama, begiak xukatuz. Aita, ilun dago apur bat)* Hori ere guretzat zuan. Ez zakiat zer behar dugun ikusi.

ARRANTZARI . - So-izak, Pantzez, haurraren bizia duk lehen. Bakarrarentzat ezina, ez duk neke multxo batentzat. Mintzatuko ditiat laneko lagunak. Denen artean lagunduko haitugu. Ez zakala diruari so egin. Haurrari emoitziak behar dituen tratamendu guziak.

PANTZEZ . - Milesker eginen dukanarentzat. Izanen diagu naski denen beharra. *(Atea joiten dute)* Aintzinat !

ERRETORA . - Egun on, jaunak.

PANTZEZ . - Egun on, jaun erretora.

ERRETORA . - Mutiko gaixo horren ikusterat heldu naiz. Goizean, mirikuarekin mintzatu naiz eta hunen Pariserat eremaitea aipatu daut. Zer deliberatu duzue ?

PANTZEZ . - Zer nahi duzu egin dezagun ? Pariserat joaitea hobe, joan behar bada.

AMA . - *(Agertuz)* Hor zirea, jaun erretora ? Zato, zato ganberarat. Frango ezti-aldian aurkituko duzu eria. *(Erretora eta Ama jalitzen dira)*

PANTZEZ . - *(Apur bat ixilik)* Zer ote dio jaun erretorak gure laneko gorabeherez ?



ARRANTZARI . - Atzo arratsean, biek buruz buru afaldu ginian. Pixka bat hortaz zirikatu nian. Gizon ona duk. Nahi lizkek denak bakean ikusi. Bainan, ez duk gure larruan bizi.

PANTZEZ . - Greba huntan, gure alde duk edo gure kontra ?

ARRANTZARI . - Ez zakiat. Neurtuz zerabiltzak bere solasak. Denena egin nahi likek. Guk egiten diagu bere artaldeko nonbrea, bainan nausien eskuetan duk gure bazka. Eta artzaina, ez zia gok ongi artaldea balin badu bazkarik gabe, eta ez ere bazka balinbadu, artalderik gabe.

PANTZEZ . - Bai, gure botika, zerbait baduk. Igandetean, nausiak eta gu, han gaituk denak batean, elizan, berdin denak mahain sainduan. Gaitzeko predikuak entzuten ditiagu, behar dugula elgar maitatu eta munduari eman, elgar maite dugulako lekukotasuna. Eta, elizatik jali ordu, zakur eta gatu bezala gaituk.

ARRANTZARI . - Zer nahi duk ? Elgar maitatzeko, behar dik elgarrekin uztartu. Uztarri on bat egitekotz, behar dituk hein bertsuko kabalak. Gure artean, gaina eta behera, elgarrenganik sobera urrun dituk, uztarri berari lotzeko.

PANTZEZ . - Ez duk ba, gure falta, ez bagira, gaina eta behera elgarri hurbilago ? Guk nahi ginikek goratu. Bainan nun kausitzen duk, gorakoetan, gu hetarat hurbiltzen laguntzeko gutizia ?

ERRETORA . - (*Agertuz*) Gaixo haurra, agian, agian aterako da. Beraz bihar goizean ekarriko diot komunionea. Jainkoaren laguntzarekin egin dezan piaia on bat eta itzul dakigun osasunaz ondurik.

PANTZEZ . - Agian ba, jaun erretora !

ERRETORA . - Xahupide handitarat sartzerat zoazte. Baduzue alderdirik buru egiteko holako gastueri ?

PANTZEZ . - Eginen dugu ahal dena, jaun erretora. Gure haur baten bizia, estimatzen dugu gainerateko ontasun guziak baino gehiago.

ERRETORA . - Ba, arrazoin duzu. Nere aldetik ere ekarriko dautzut zerbait. Bainan, gure moltsak guti dira hor eginen den ziloaren tapatzeko. Behar ginituzke laguntzale ahaldun batzu harrapatu.

PANTZEZ . - Egia. Bainan nor ?

ERRETORA . - Mintza baneza zure lantegiko nausia ?

PANTZEZ . - Trufaz ari zirea, jaun erretora ?

ERRETORA . - Zertako ?

PANTZEZ . - Orai, greba batean giren huntan, nahi diozu nausiari langile baten haurrarentzat laguntza eskatu ? Ez duzu ikusten nola errabiatua dabilan, grebaren sustengatzeko egiten ditugun esken kontra ?

ERRETORA . - Ez da gauza bera zerbait eskatzea grebalarientzat eta zure kasuarentzat. Eta, kasik segur naiz, zure haurrarentzat, zure nausiak laguntza egin lezakela.

PANTZEZ . - Holakorik ez dut nahi, jaun erretora !

ERRETORA . - Zertako ?

PANTZEZ . - Zeren, jaun erretora, nausia sobera fier bailiteke erraiten ahal balu, gure beharrez izan girela haren aintzinean apaltzen. Egin lezaken laguntza ez liteke bihotz onezkoa, bainan gure bizkar, plazer tzarrez hanpatzekoa, baliatuko luken laguntza.

ERRETORA . - Nik ez dakit ba. Holakoetan balios da norbait esku zabaleko ukaitea.

ANDRE . - Gu ere hor gira gero, jaun erretora. Ur xirripak gira, bainan ur xirripa hainitzek egiten dute ur-ibaia.

ERRETORA . - Ba, gisa hartarat zerbait moldatuz geroz... Bainan, ni baitan nindagon ez ote zen, nausia ekarriz haurraren ikusterat, zuekin mintzatzerat, ez ote zen bakea errextuko zuen artean.

PANTZEZ . - Bakea laster egina liteke, jaun erretora, nausia eta ni bagina elgarrekin haserre, gure jite desberdinengatik, bainan gira bi gobernu bezala. Nausia da kapitalaren gobernu, ni aldiz lanarena. Ene buruari eta ene familiari baino urrunago behar dut behatu, nausiarekin ditudan solaskadetan.

ERRETORA . - Bai, bai, bainan gizonak elgar maite badute, heien arteko gorabeherak errexkiago xuxentzen dira. (*Hemendik aintzina, solasa doala pixka bat minduz*)

PANTZEZ . - Zuzentasunik ez den lekuan, amodiorik ez da lorezen.

ERRETORA . - Zuzentasun osorik ez dagoke lur huntan.

PANTZEZ . - Osorik ez, bainan gizonen egitekoa da zuzentasun ahalik zuzenena izan dadien.

ERRETORA . - Nork duke hobeki lagunduko eri duzun haurra ? Nere moldeak ala zureak ?

PANTZEZ . - Nork du hobeki errespetatzen gizona ? Zure moldeak ala eneak ?

ERRETORA . - Ene moldek ez dute errespeturik nehorri galtzen.

PANTZEZ . - Nausiaren errespetua ez, ez duzu galtzen bainan langilena ba.

ERRETORA . - Ez naiz ni, ez langilen eta ez nausien alde, bainan denen bakearen alde.

PANTZEZ . - (*Bizi-bizia*) Zuk proposatzen daukuzun bakea da : Zorri lehertuaren bakea. Ez dugu langilek nahi zorri lehertua izan.

ERRETORA . - Bon, segi-azue beraz gerla. Hor ikus, ean hobeki aterako zirezten.

PANTZEZ . - Ez dugu bakeari gerla egiten, bainan gerlari bakea xekatzen.

ERRETORA . - (*Betbetan eztituz*) Bon, hobe dugu huntan gelditzea. Nik ene egin ahalaz lagunduko zaituztet eta gure Jainkoa urrikal dakigula !

PANTZEZ . - Agian ba, jaun erretora !

ERRETORA . - Sarri artio, jaunak.

PANTZEZ . - Ba, sarri artio, jaun erretora. (*Erretora jalitzen da. Apur bat ixilik*) Behar bada soberaxko erran zioiat, bainan ez diat urrikirik.

ARRANTZARI . - Ba, askotan ixilik egoitea errexago duk mintzatzea baino.

PANTZEZ . - Mahainean jarrita direnek ez ditiztek maite ate gibelean goserik daudenen kurrinkak. Iduri-eta heien mahaineko bakea dela egiazko bakea.

ARRANTZARI . - Bai, eta ene iduriko, beti izanen baitira kurrinkariak, beti ere beharko dituk bakezaleak.

PANTZEZ . - Ba, bainan nik ez ditiat bakezaleak deitzen "xo" eta "xo !" ari direnak kurrinkarieri, bainan hauk nun duten min ikusiz min horien tratatzerat entseatzen direnak. Horiek dituk egiazko bakezaleak.

ARRANTZARI . - Horixe bera gogoan nindoian, apezarekin arrazoinka ari hintzelarik. Jesus eta haren lagunak, gizon baketsuak zituan. Bainan ontsasko nardarazi zizteian beren denborako jende batzu. Hortako izan zituan hiltzerat kondenatuak.

PANTZEZ . - Ba, asko gizonentzat erraten ditek gizon baketsuak direla, bainan niagok ez ote liteken hobeki errana eñul batzu direla.

ARRANTZARI . - To, soizak nor heldu zaitan otoan ?

PANTZEZ . - Nor ?

ARRANTZARI . - Nausiaren emaztea, bere seme Andrekin. Ni banihoak.

PANTZEZ . - Ez, hago hemen apur bat. Zertarat heldu dituk horiek ? Gure nardatzerat ? Ez ditzatela enekin solasak ibil kontra-eremuetan. Ulitxetan nauk gero orai. Eta jaun erretorari erdizka erranak, horieri doblezka ditiat gero aterako.

ARRANTZARI . - Ezti hadi mutikoa. (*Atea jotzen dute*)

PANTZEZ . - Aintzinat ! (*Agertzen dira Dama eta Andre*)

DAMA . - Agur jaunak.

PANTZEZ . - Agur jaun andereak... Bazabiltzate ?

DAMA . - Ba. Jaun mirikuak aipatu dauku zuen kasua eta zer egin daiteken ikusterat heldu gira. Nola duzue mutikoa ?

AMA . - (*Agertuz*) Hemen dugu, hemen. Aintzina zaitzete, jaun andereak. (*Jalitzen dira Ama, Andre eta Dama. Apur bat ixilik*)

PANTZEZ . - Zer behar ote diagu entzun ?

ARRANTZARI . - Bon, errak. Ni banihoak. Hi ez bai hiz egun berdin hemendik aterako, greba konduak utz-aitzik enegain. Eta haurrarentzat dirua biltzeko, lagun multxo batekin elgar adituko diagu. Gure artean eta arrabotsik gabe, nik uste, bilduko diagu hik xahutuko dukan baino gehiago.

PANTZEZ . - Milesker, gaizoa. Ez dakik zonbat estimatzen dudan hire egitatea. Eta, haugi maiz-maiza eni berrien ekartzerat.

ARRANTZARI . - Jinen nauk, jinen nauk. Behin ere baino elgarri hurbil ibiltzeko egunak baitituk, oraiko gure hauk. (*Arrantzari jalitzen da... Apur bat ixilik... Agertzen dira Dama, Andre eta Mayi*)

DAMA . - Jaun mirikuak aipatu daukularik zuen kasua, berehala deliberatu dut ene andere lagunekin "comité" ttipi bat muntatzea zuen laguntzeko. Kasetetan aipatuko dugu zuen haurrarentzat eginen dugun diru bilketa eta nihaur emanen naiz buru, suma koxkor batekin. Hola, nik uste, beste zonbaitek ez dute nahiko nik baino gutiago karitatea egin. Jaun erretorari ere galdatuko diogu elizatik aipa dezan diru bilketa hori.

PANTZEZ . - (*Hotz-hotza*) Milesker, anderea, zure xede onez. Egia da : Diru beharretan gira. Bainan zuen dirutik ez dut nahi.

DAMA . - A ! Gure diruak zer itzal dauka, zuk hortarik ez nahi izaiteko ?

PANTZEZ . - Diru hori emaiten dautazue, zoinek gehiago zuen burua aiparazteko. Hori ez da karitatea, bainan karitatearen itxura hartuz, zuen urguluaren zerbitzatzea eta arras merke, zuen kontzientziaren deskantsatzea.

DAMA . - Jes ! Ongi jaun handizat daukazu zure burua.

PANTZEZ . - Bai, anderea. Nik ene burua jaun daukat, zuk zurea andere bezenbat. Ez ote gira biak gizon arraza bereko ? Nahi dut zure moltsak pisatzen duela enek baino gehiago. Bainan, ez du moltsaren kargak egiten gizotasunaren pisua.

DAMA . - Badakit hori, jauna, bainan karitateak ez ahal dauku manatzen gehiago duenak laguntza egitea gutiago duenari ?

PANTZEZ . - Karitatea da, anderea, besten laguntzeko eginbidea, bainan ere eskubidea. Eginbidea hor daukazu, bainan ez dautzut nik eman ni laguntzeko eskubiderik.

DAMA . - Zer eskubide ?

PANTZEZ . - Nik ez dautzut eman ene bizian sartzeko, ez eta ere, orori beharretan naizela agertzeko, baimenik. Apal izaiteak ez du erran nahi zure meneko izaitea. Hain zira usatua jende apalen gobernatzen, zure menekoak balira bezala, nun heien gorabeheretan sartzeko ausartzia hartzen baituzu, batere heien berri galdu gabe. Holakorik egin ote zinezake zure maileko jende handiekin ?

DAMA . - Zer behar dut ba egin, zuri karitatea egiteko eskubidea ukan dezadan ?

PANTZEZ . - Eskubide hori, anderea, ez da hitz batez, ez eta egun batez, biltzen dena. Bainan, denborarekin, jende xehea, errespetatuz eta umilki zerbitzatuz biltzen dena.

DAMA . - Ez dakit ba nik. Greba dela, gabezia zireztela-ta, eske egiten ari zirezte. Uste nuen, egingo nuen laguntza, zuentzat ongi etorria izanen zela.

PANTZEZ . - Ez ginuen izanen grebarik, ez eta nehoren laguntza beharrik hobeki pagatuak bagine gure lanarentzat. Gure miseriaren ziloa zuetarik heldu da. Gure ziloari kendutik duzue altxatzen zuen mendia.

DAMA . - (*Bizi-bizia*) Errazu, hasian-hasi, ohoin batzu girela !

PANTZEZ . - Bada hainitz ohointza mota. Zuzenez eman behar liteken ez emaita, ez da ohointza ? Ebasleak ebatsiari karitatea egitea, ez dea hori, ohointzaren gainerat, ustelkeria ?

DAMA . - Jes ! Zoin harro dabilkazu zure burua ! Ahantzia duzua nundik ateraia ziren ? Ez zirela zu Mayi Terrentaren semea ?

ANDRE . - Ama, zaude ixilik.

PANTZEZ . - Ba, hala naiz, eta fier naiz hala izaiteaz. Eta segur naiz zure aintzinekoetan, eta biziki urrun joan gabe, balitekela Mari Terrenta bezalako zorbait.

DAMA . - Ba, haatik oraiko heinerat altxatu bagira, ez uste izan huntaratu girela jeloskeria eta grebaren bidez, bainan apalki eta zintzoki lanean ariz.

PANTZEZ . - Bai, beharbada zure aintzinekoetarik zorbait, bere merezimenduz aberastu dira. Bainan geroztikakoen merezimendu handiena ez ote da izan moltsa azkardunen haurrak zirela ?

DAMA . - Ez dugu nortarik sortzea hautatu, ez zuk eta ez nik.

PANTZEZ . - Horixe diot ba. Izan bazina zu sortzez jende behartsuen alaba, zer izanen ote zinuen egun ? Eta zer izanen ote zen zurekin daukazu seme jauna ?

DAMA . - Andre, goazen hemendik. Entzunak entzun, konprenitu ahal dut nolakoak diren oraiko langileak !

ANDRE . - Ama, apur bat oraino.

PANTZEZ . - Ta, agian, zure seme jaunak beste molderik hartuko du gurekin. Bainan ni beldur, bulegoko neskatxen enganatzerat entseatzen den nausi-semeak, ez ote dauzkan aitaren plegu berak.

MAYI . - (*Asaldatuz*) Aita, otoi, zaude ixilik. Zuk pitsik ez dakizu. Gezurrean ari zira. Otoi, barka zazu, Andre jauna.

DAMA . - Ba, eta ene semeaz ilusione egiten duen bulegoko neskatxak, ez bide du zentzu handirik.

ANDRE . - (*Bizi-bizia*) Ama, zuk ere hortaz bakea emazu. Horiek ez dira zuen gorabeherak, bainan gureak.

DAMA . - Ba, eta ez nintzateke harritu ez ote den ene semearen bidez goratu nahi den neskatxa, apalen alde mila ele ateratzen dituztenen alaba zorbait.

ANDRE . - (*Fermuki*) Ama eta zu, jauna, utz nezazue otoi bi hitzen erraiterat. Mayi eta ni, gazteak gira. Ez gaitzazuela otoi sar zuen arteko gaxtakerietan. (*Mayiri eztiki*) Mayi, etorriak ginen zure anaiari laguntza egin nahikundez. Zer zerbitzu egin dezakegun eta nola, otoi zato eni erraiterat. (*Damari*) Eta orai, ama, goazen, zato enekin. (*Pantzezeri*) Agur, jauna. (*Mayiri*) Laster artio beraz, Mayi. (*Dama eta Andre jalitzen dira*)  
MAYI . - (*Nigarrez, zainetatu aitari*) Ahalge ere ez zira hola mintzatzeko. Nik ez dakit zertako ari izan ziren hola bazterren nahasten, deus ere jakin gabe. (*Jalitzen da. Pantzez dago bakarrik, apur bat pentsaketan, burua esku baten gainean pausatua*)

OIHALA

HIRUGARREN GERTALDIA

**Joka-lekua :** Nausiaren bulegoa.

*Nausia dago bakarrik, lanean ari.*

ANDRE . - (*Agertuz*) Aita ?

NAUSIA . - Zer da ?

ANDRE . - Otoa prestatzen dautazuia apur batentzat ?

NAUSIA . - Ba, bainan apur batentzat bakarrik, gero !

ANDRE . - Aireplanerat ereman behar dut Parisen operatzekoa den mutikoa. Eta, bideko, zure otoa enea baino goxoago izanen du.

NAUSIA . - Ontsa duk. Eta gero erranen ditek bihotz gabeak girela.

ANDRE . - Bon, apur bat artio, aita.

NAUSIA . - Ba, ibil hadi ongi. (*Apur bat ixilik. Zirrintza jotzen dute*) Aintzinat !

ERRETORA . - (*Agertuz*) Agur, jauna.

NAUSIA . - Agur, jaun erretora. Hemengo aldi ?

ERRETORA . - Bai, jauna.

NAUSIA . - Jar zaitte. Berri onez ahal zabilta bederen ?

ERRETORA . - On eta erdi-onez, jauna.

NAUSIA . - Ez zira bederen eske heldu ?

ERRETORA . - Badakizu engoitik apeza beti eskale dela.

NAUSIA . - Ez beti eni galda zu laguntzea igandean aipatu duzun eske horri buruz.

ERRETORA . - Eske hori ez zautzuia ongi ?

NAUSIA . - Ez, jaun erretora. Hortaz mintzatzen entzun zaitudalarik, abantxu elizatik kanporat jali naiz. Zure errespetuak nau lekuan atxiki, eta zuri afruntu ez egiteak. Bikarioa izan balitz hola mintzatu zure orde, ez da dudarik lekuak hustuko nituela.

ERRETORA . - Zer kausitu duzu hoin asaldagarririk ene solasetan ?

NAUSIA . - Erran duzu eske bat muntatzen duzula, miserian diren grebalarien laguntzeko. Miserian badira, noren falta da ? Aski dute lanean lotzea eta ukanen dute bizitzekoa.

ERRETORA . - Hor bi gauza badira : Batetik zu eta zure langilen arteko auzia. Auzi hori ez dut jujatu nahi, ez baita eni horren jujatzea. Bestetik, ikusten ditut miserian, xaharrak, eriak, haurrak, ez dutenik deus hobetik greba huntan, baina direnak hunen jasaile. Ez naiteke egon hautaz urrikaldu gabe. Horra zertako dutan muntatu eske hori, ez grebaren sustengatzeko, baina grebatik heldu diren sofrikarioen soleitzeko.

NAUSIA . - Bai, zuk hola diozu, baina zure eskearen laguntzaz, grebalarieri ematen diozute gehiago irauteko ahala.

ERRETORA . - Ez dut uste gerla bat luzatzen denik "Gurutze gorriak" ekartzen duelakotz bere laguntza gerlaz hunkitu hobengabeeri.

NAUSIA . - Ba, baina gerlan "Gurutze gorriak" berdin laguntzen ditu bi eskualdeak. Zure laguntza aldiz da bakarrik langileari eta ez nausiarri.

ERRETORA . - Grebak, jauna, nausieri moltsa diote hondatzen, langileri aldiz bizia. Lanjerean den biziari lehenago laguntza zor zaio, ezenez lanjerean den moltsari.

NAUSIA . - Baina, grebalariek, ez ote dira berak beren nahigabeaz hobendun ?

ERRETORA . - Esklaboak ba, azoteaz bortxa daitezke lanerat, baina libertatearen eskubidea da ezetz erraitea, zuzen ez zaizun lan moldeari.

NAUSIA . - Beraz greba onartzen duzu ?

ERRETORA . - Onartzen dut langileari zor zaiola greba egiteko ahala. Ez dut erraiten greba guziak zuzenbidezkoak direla.

NAUSIA . - Eta oraiko greba hau zuzenbidezkoa zautzua ?

ERRETORA . - Hori nik ez dakit. Zuk eta zure langilen buruzagiek dakikezue hobekienik.

NAUSIA . - Zer nahi duzu jakin dezaten Mari Terrentaren semeak eta haren lagunek ? Bazterren nahasten ba, badakite. Besterik ez.

ERRETORA . - Pantzez, Mari Terrentaren semea aipatu baituzu, zu eta haren arteko gauza batez mintzatzerat etorria ninduzun.

NAUSIA . - Ba, bere haurra operatzekoa duela. Badakit, badakit. Semea han dut joana otoarekin haurraren segitzerat airetakoen pausa lekurat. Gero, milesker gisa, ariko dira ene kontra zernahi erranka.

ERRETORA . - Ez, jauna, ez naiz etorria operatzeko den haur hortaz mintzatzerat, baina haur horren arrebaz.

NAUSIA . - Zer ? Mayi, nere bulegoan ari den neskatxaz ?

ERRETORA . - Ba jauna : Ean zer diozun neskatxa hortaz ?

NAUSIA . - Ez dut hortaz arranguratzekorik. Bere lana zintzoki egiten du eta izpirituz ernea da.

ERRETORA . - Ez da errex erraitea erran gogo dudana, baina ez zirela ohartu zure semearen eta neskatxa horren artean, esteka berezi batzu badirela ?

NAUSIA . - (*Harritia*) Zer ? Zer erran gogo duzu ? Gure Andrek josta-laguntzat badaukala norbait ? Baditake, baina ez dut aise sinesten. Ez zait iduritzen gure Andre gisa hortako mutil bat dela.

ERRETORA . - Ez dut erran Andrek, Mayi nahi duela josta-laguntzat, baina biziko laguntzat.

NAUSIA . - Zer ? Andrek, Mayi nahi lukela ezkont-laguntako ? Trufaz mintzo ahal zira ? Uste duzua lau ehun langilen nausi berriak esposatzeko gutizia daukala, eskuak hutsik eta arraza gabeko den neskatxa batekin ? Ta, gainerat, bere langile batekin ? Alo, alo, jaun erretora !

ERRETORA . - Badakizu, jauna, gazten bihotzek eta zaharren adimenduek ez dutela berdin ikusten.

NAUSIA . - Gure Andre ez da hemezortzi urtetan. Hogoitamar urtetarat doa. Ez dut erraiten ez dezakela izan, denbora pasagarri, holako norbait abusagailutzat. Gazte da eta, gaztetasunaz baliatu nahi lukela, paso. Bainan, gisa hortako presunarekin ezkondu ? Ez daitekena da, sinets nezazu, jaun erretora. Ez da gure Andre, bihotzeko haizek dabilzkatzen gizon buru xoro hetarik.

ERRETORA . - Ez dakit ba. Bainan, gerta baladi nere iduripena izaitea hala dena, jakintsun izanen zira aintzinetik.

NAUSIA . - Ba, ba, jaun erretora. Bainan ez dut hortaz odol gaxtorik eginen. Badut arrangura larriagorik. Eta, ez dadin duda-mudakeriarik airetan ibil, neskatxa hori bera deituko dut hunarat eta erranen diozkat bi hitz. (*Telefonak joiten du*) Alo ?... Ba... Ba... Alemaniako erosle handi hura ? Nun da ? Zure bulegoan ? Errozu berehala heldu naizela. Barkatuko duzu, jaun erretora, kondu egileak telefonatzen daud. Norbait badut ene galdez.

ANDRE . - (*Sartuz*) Hemen naiz, aita. Zure otoa hor duzu atean. Agur jaun erretora.

ERRETORA . - Agur Andre.

NAUSIA . - To, xuxen-xuxena behar orduko ekartzen daudak otoa. Uzten zaituztet biak. Laster artio.

ERRETORA . - Ba, apur bat artio, jauna.

ANDRE . - Ta, jaun erretora, aipatu diozu aitari ?

ERRETORA . - Ba, Andre, aipatu diot.

ANDRE . - Nola ikusten du ene xedea ?

ERRETORA . - Gaizki baino makurrago. Ez du sinetsi nahi ere, zuk holako xederik badukezula.

ANDRE . - Zer ba ? Hain eroa dea ene xedea ?

ERRETORA . - Zuretzat eta enetzat ez, ez da eroa. Bainan dirudun munduarentzat ba, hala da.

ANDRE . - Mayiren kontra baduia pits erraiteko ?

ERRETORA . - Estimatu ekartzen dio langile gisa, bainan ezin jasana du errenatzat.

ANDRE . - Beti gauza bera da : Diruak diruari lehen agurra. Moltsa hutsadun gizon hoberena baino, moltsa betedun edozoin hobekiago ikusia.

ERRETORA . - Hola da mundua.

ANDRE . - Nago nola sail hortako den ene aita. Bizkitartean gizon ona da, euskalduna, elizan ibiltzalea.

ERRETORA . - Ba, bainan ez du ebanjelioa hartu bere laneko biziaren izar-gidaritzat.

ANDRE . - Nola ditake hori ? Ene aita familia fededunetik da. Eskola eta ikastetxe giristinoetan altxatua, obra on guzien sustengatzailea eta, ber denboran, lantegiko gorabeheretan ez du aditu nahi elizaren erakaspenik.

ERRETORA . - Zure aita da bere denborakoa. Zu zira oraikoa.

ANDRE . - Ez duzuia uste, gure aita eta beste holako asko moldatu dituzten apezek hoben handia badaukatela ?

ERRETORA . - Nolaz hori ?

ANDRE . - Ez dituztelakotz, oraiko nausiak, oraino gazte zirelarik, aski argitu eta moldatu beren geroko karguari buruz.

ERRETORA . - Beharbada, apez horiek ez zuten ikusten ondotik heldu zen bizia. Guk ondorioak ikusten baititugu, barnago senditzen ditugu heien hutsak.

ANDRE . - Bestelako edertasunik izanen zuten gure aitarentzat bere biziko lanek, bere kargua ikusi balu ez bakarrik diru egiteko ofizio bat bezala, baina munduaren zerbitzatzeko eta bere langilen gizonagotzeko kargu bat bezala.

ERRETORA . - Predikua, Andre, ongi da, baina etsenplua miletan hobeki. Laster, zuen lantegian, aita ordainduko duzu. Entsea zaite zure fedezko erakaspenen obratzerat. Horiek zimendutzat hartuz, zure lantegiak ongi kurritzen badu, ez dagoke prediku hoberik munduarentzat. Oraiko mundua, ele baino etsenplu goseago baita.

ANDRE . - Hori da ene biziaren helburua. Ez dut dirutzearen ondotik ibili gogo. Aski zait ene eta familiaren bizia irabaztea. Ez dut nahi ene langileak lanean ar diten neretzat, baina bai nerekin. Ene lantegitik ez ditut atera nahi bakarrik esku-lan ederrak, baina langile, gizon-izaitzez edertuak.

ERRETORA . - Huna zure aita berriz heldu. Ni banoa. Agian, samindurarik gabe, onart-araziko diozkazu zure xedeak. Bestaldi bat artio, Andre. *(Jalitzen da)*

ANDRE . - Ba, bestaldi bat artio, jaun erretora. *(Apu bat ixilik)*

NAUSIA . - Bakarrik hiza ?

ANDRE . - Bai aita. Jaun erretora oraintxet joana da.

NAUSIA . - To, nahiko nian enekin izan bahintz eleketan aritzeko, orai hor nuen aleman jaunarekin. Nahiko nian ikusi nola itzulikatuko hintzen hire amets eder guziekin.

ANDRE . - Eginen nuen zuk egin duzuna : Ahal dudana. Ez gira komertzioko biden jabe eta, orok dakiguna da, oraiko legez, sal-erospenetako, behar dela erne ibili eta borrokatu.

NAUSIA . - Ez girela merkatuaren jabe ! Uste duka lantegiaren jabe girela ? Izenez ba hala gaituk, baina gure lantegiaren ibilera bankoen eskuetan duk. Eizak egin, hire lantegian, bankoetako nausieri plazer ez zaioteken politika. Ikusiko duk nola, laster halere, agortuko daieten diruaren iturria. Hauta izanen baituk, edo heieri jarraiki edo lantegia hetsi.

ANDRE . - Bankeroen politika bakarra da, aita diru egitea. Gure lantegiarekin diru egiten badute, ez naiz beldur ez daukatela dirurik aintzinatuko. Gaizki doan lantegiari ba, bankoak uzkur dira dirua prestatzeko, baina ez ongi doanari.

NAUSIA . - Ba, baina hasten bahaiz hire gogoeten zabaltzen, eskubide guziak behar litezkela kapitalisteri kendu eta gobernuari eman, uste duka ukanen dukala kapitalisten laguntza ?

ANDRE . - Ez da den gutienik ene gogo, gobernu behar dela ezarri lantegi guzien jabe. Hortaritzen bagina, orai baino makurrago gintezke. Langilentzat hobe da nausi multxo baten artean hauta, ezenez gobernu denen nausi bakarra.

NAUSIA . - Zer nahi duk ba xuxen ?



ANDRE . - Iduritzen zait, langileri behar zaiotela eman lantegian, kargu eta parte gehiago : Zer lan egin, nola egin, laneko irabaziak nola partika eta holako asko pondutan.

NAUSIA . - Bai, nahi ditukan moldeak hartuko dituk, bainan ez balinbaduk buru bakar bat lantegiaren ibiltzeko, hire lantegia laster errekaratuko duk.

ANDRE . - Bai, aita, buru bat behar da lantegiaren gidatzeko bainan buru harek behar du gorputz baten gainean eta gorputz harekin beti hartu-emanetan.

Buruak bakarrik deus ez dezake, gorputza jartzen bazaio greban.

NAUSIA . - Orai artio, hoinbeste ixtorio gabe, lantegiek egin ditek bizitze.

Zertako ez zukek berdin orai eta gero ere ?

ANDRE . - Gazte zinelarik, aita, lantegietan ez zen honenbeste oren lanean aritzeko legerik, ez eta bakantza pagaturik. Denbora iragan arau, etortzen dira erreberritzeak. Ez da beraz asaldatzekorik, oraiko langilek ere nahi badituzte zorbait urrats aintzinerat egin, beren zortearen hobetzeko.

NAUSIA . - Ba, bainan urrats eta urrats aintzinat, azkenean bide muturra joko ditek, eta muntadura guziak leher eginen dik.

ANDRE . - Ez aita. Mundu zabalean badira hainitz eta hainitz lantegi, nik entseatu nahi nituzken moldetsuetan lanean ari direnak eta arras ongi beren gorabeheretan ateratzen direnak. Zertako ez dezakegu hemen antola bestek beren lekutan egiten duten bezalatsuko zerbait ?

NAUSIA . - Ba bainan ez duk errana beste lekuetan ongi ematen duenak hemen ongi eman lezakela. Nola nahi duk gure lantegiko giderretan parte har dezaten hor langile ditugun bulunba multzo batek ? Ez ditek horiek pits konprenitzen.

ANDRE . - Orotan bada, aita, orotarik. Den bulunbenak badauka zerbait ahal. Langilek badakite elgarren berri eta, ni segur, beren arteko gidariak ongi hautatuko dituztela, hauen eskuetan, parte on bat izanen delarik, beren irabazien gakoia.

NAUSIA . - Ez zakiat ba nik. Ez diat uste nausi gaxto bat naizela. Askok behar ordutan ixilka lagundu izan ditiat ene langileak eta guti nausi duk nik bezenbat present egiten diotenik eguberrikari edo bestela.

ANDRE . - Langileak, aita, ez du bizi nahi presentetik bainan berak irabazitik. Presentak behar bada nausia satifatzen du, bainan langilea apaltzen. Ez eman langileari eskale saririk, bainan lanaz merezitutik.

NAUSIA . - Uste baduk langilek diferentzia hori egiten dutela, arras gaizki ezagutzen dituk. Irabazi edo present, berdin hartzen ditiztek eman guziak. Eta usaiaiko presentik ez bazioteiat largatzen, laster hor ditiat kurrinkaz ondolik.

ANDRE . - Eskalego usaia gaxtoak izan daitezke langiletan ere. Usaia horiek ez ditugu lagundu behar bainan bai agortu. Nausi bezala dauzkagun ahalak behar ditugu partitu langilekin eta ez gure irabazien soberakinak. Oraiko langileari ez zaizko ekarri behar hanbat eskuak kargaz beteak bainan karguz. Ez baita langilea hanbat gose zerbait ukaitzaren, nola baita gose norbait izaitzaren.

NAUSIA . - Ez zakiat zertarat helduko haizen hire amets eder horiekin. Agian jakinen duk hire lana gobernatzen, hartaz arrazoinkatzen dakikan bezen ontsa. *(Atea joiten dute. Dama agertzen da)*

DAMA . - A, biak zineztena ? *(Senarrari)* Neskaxa julufrai bat baduzu hor zu ikusterat jina. Zuk igorri omen diozu hunarat etortzeko galdea.

NAUSIA . - Ba, egia erran du. Errozu apur bat egon dadien aiduru eta gero, otoi, zu ere sartuko zira harekin. *(Dama jalitzen da)* Badakika nor den hor ?

ANDRE . - Ez batere.

NAUSIA . - Mayi, gure daktiloa.

ANDRE . - A, ez duzu bederen lanerat jin arazten ? Ez liteke pollit, familiari egin diozun laguntzaz baliatzea, ordaintzat Mayiri galdatzeko grebari uko egin dezan.

NAUSIA . - Uste duka Mayik zerbait irabazi beretzen duela greba huntarik ?

ANDRE . - Segur ezetz. Bainan ba galtzen du eta diot galdu ere behar duela.

NAUSIA . - Zertako ari behar dik bere buruari harrika ?

ANDRE . - Ez duelakotz kontzientziatz dretxorik bere lagunuen ukatzeko edo hetarik berex egoiteko. Heien sakrifiziotik duenaz geroz bere irabazien gorabehera, xuxen ahal da heien sakrifiziotan parte har dezan ere.

NAUSIA . - Bazukek, bainan ez diat Mayi batere hunarat deitu hik aipatu arrazoinengatik.

ANDRE . - Jakiten ahal duta zertako ba ote ?

NAUSIA . - Ez duka pentsatzen ?

ANDRE . - Ean, errazu.

NAUSIA . - Ez zakiat egia den, bainan ez zezakeat sinets hala-holako moldetan ibiltzen zireztela hi eta Mayi.

ANDRE . - Eta gero ?

NAUSIA . - Neskatz hortaz baliatu gogo baduk, ez duk pollit. Ezin diat amets hortarik egin gogo dukala hire emaztea. Dena den, eman gogo zioiat ene gogoaren berri.

ANDRE . - Jakiten ahal duta zer trabagatik neskatz hori ez ditaken izan ene emazte ?

NAUSIA . - Zozokeriaz ala zinez ari hiza ? Ez ahal haiz holako baten ondotik ibiliko, gure arteko familietan baditukalarik dotzenean hamahiru, hori bezain neskatz zintzoak, gainerat ikasiak eta munduaren ara dakitenak !

ANDRE . - Bizkitartean, aita, jakin behar duzu Mayi dutala ene hautua eta, Jainkoak nahi badu, horrekin naizela ezkonduko.

NAUSIA . - (*Harritua*) Zer ? Zer ? Baduka burutik ? Ikusten duka norat ari haizen ?

ANDRE . - Bai, aita, nere gogoetak ongi eginak ditut.

NAUSIA . - Zer behar diagu beraz, gure langile bat errenatzat ? Hire ofizioarekin maiz izanen dituk jende handiak hireganat etorriko direnak. Heien artean ere beharko duk ibili. Holako espos lagun batekin, nahi duka jende horien arterat sartu ?

ANDRE . - Kontent ez denak, egin beza mahain azpitik xixtu.

NAUSIA . - Xoxokeria duk hola mintzatzea. Sinets nezak, gure lantegiak, oraiko egunean, balikek laguntza on baten beharra eta oroit hadi dotedunak dituela laguntzaleak berekin, dote gabeak aldiz, larrutzaleak.

ANDRE . - Aita, debaldetan dira zure eleak. Mayi hartu gogo dut espos laguntzat, nor den eta zer daukan, arras ontsa dakidalarik. Eta hori nahi dut emaztetzat, arrazoin bakar batengatik : Den bezala maite dudalakotz.

NAUSIA . - To ! To ! Lan onean ezartzen nauk.

ANDRE . - Ez baita gomeni Mayi atean luzaz atxik dezazun, banoa hemendik. Esperantza dut ez diozula, merezi ez duen penarik eginen. (*Jalitzen da*)

NAUSIA . - (*Bakarrik, eskuz buruari lotua*) Hau mutilaren kasko gogorra. (*Apur bat ixilik. Atetik deituz*) Sartzen ahal zaitezte. (*Agertzen dira Dama eta Mayi*) Jar zaite, Mayi. (*Apur bat ixilik*) Ez ahal dakizu, Mayi, zertako deitzen zaitudan ?

MAYI . - Ez jauna.

NAUSIA . - Jenden aho-mihitarik eneganat etorri dira berri batzu, batere ez baitautet plazer egin.

MAYI . - (*Harritua*) Zer berri, jauna ?

NAUSIA . - Langile gisa hartu zaitut ene bulegoan. Konfientzia osoa egin dautzut, baina ez nuke nahi balia zaiten ene konfientziaz, ene familiako biziaren nahasteko.

MAYI . - Nik jauna ? Nolaz hori ?

NAUSIA . - Ba, ez nuke nahi entzun gure Andren ondotik ibilki zirela. Gero nahigabetan sartzen bazira, ez uste izan gure bizkar hartuko dugula gertatuko zaizuen ondorio makurra.

DAMA . - Ez ahal duzu petrentzionerik, Mayi, gure Andrek zurekin bere bizia apailatzeko gogoia daukala !

MAYI . - Ez naiz ni ibilki Andreren ondotik. Bera hor da lekuko.

DAMA . - Ez erran guri hala ez denik. Ez zira haurra. Aski diozu ezetza fermuki erraitea Andreari, ez ez zaizu gehiago ondotik ibiliko.

MAYI . - Anderea, barkatuko duzu erranen dudana, baina lanez salbu, ez dut zueri ene biziko egitatez kondu emaiterik. Ez da zuen ikustekoa ni norekin nabilan, lantegitik kanpo.

NAUSIA . - Ba, egia diozu, baina gure zuzenbidea da begien idekitzeko nor sartzen dugun gure bulegoan.

DAMA . - Eta ez uste izan hemen langile atxikiko zaitugula, ez baduzu beste urratsik hartzen. Zuretzat onak izan gira. Badakizu nola azkenik lagundu zaituztegun zure anaia ttipiarentzat. Esker onik ez badugu ukaiten ere, ez ahal dugu bederen esker-gabetasunik ukanen zureganik.

MAYI . - (*Idorki*) Anderea, egia da, zuen ongi-eginari zor diogu esker ona, baina ez esklabotasuna;

DAMA . - (*Irri tzar batekin*) A ! Esklabotasuna ! Nun ikasi duzu hitz handi hori ? Pantzez Terrentaren alabari eman baitzaio hola mintzatzea !

MAYI . - (*Xutitzen da eta nigarrez errabian*) Ene aita utziko duzu bere gisa eta ene familia ere ! Zuek bezenbat balio baitugu ! (*Urrats biziz lekuak husten ditu*)

DAMA . - (*Gibeletik*) O, ez du balio mokanesa nigarrez hola bustitzea !

Idortzeko lana ukanen duzu eta beste pitsik ez !

OIHALA

LAUGARREN GERTALDIA

**Joka-lekua** : Aintzineko barne bera.

NAUSIA . - Beraz, azken aldikotz sartzen nauk bulego huntan, nausi bezala. Oraidanik hi izanen haiz lantegi huntako nausi berria. Duela hogoita hamabi urte, hartu nian kargu hau aitaren eskutik. Orduan ez zituan leku hau orai bezala. Berrehun bat langile ginizkan bakarrik. Orai uzten daizkiat lau ehun.

ANDRE . - Nik ez dakit, aita, noiz eta nola utziko dudan lantegi hau. Bainan kontent ninteke hau gidatzen banu zuk bezenbat urtez, eta azkartzen banu, zuk egin izan duzun bezenbat.

NAUSIA . - Bai, aitor diat, naski, hik ni bezala, nik aita, arras moda xaharrekoa kausitu nuela, haren laneko segida hartu nuelarik. Bainan, laster ohartu ninduan, hainitz banukela aitarenganik ikasteko.

ANDRE . - Ez da dudarik, aita, enetzat gauza bera izanen dela eta maiz etorriko nautzela kontseiluketarat. Nere xedea da zaharren oraikotzea, bainan zuri izanen da ni argitzea nolakoa den, berritu nahi dudan zaharra, ez dezadan hautsi, xuxendu bakarrik eta hobetu nahi nukena.

NAUSIA . - Kontent nauk, hola mintzo bai hiz. Zuhurtzia duk hola jokatzeko. Ari denak beti egiten ditik hutsak, bainan gutiago, buruz ari denak. Eta buruz aritzea duk saila hautsi gabe, oraikoa lehengoari jostea.

ANDRE . - Hortan, aita, zure eta ene gogo dira, hari bereko.

NAUSIA . - Egizak beraz bizitze, seme. To, hirea duk lantegi hau. Izanen duk lan, atsegin, bai eta ere sofrikario.

ANDRE . - Milesker, aita.

NAUSIA . - Errak, eta... Laster ezkontzen haizenaz geroz, nahi nizkek ahantzi Mayirekin izan ditugun gorabeherak. Amari ere errana zioiat. Agian elgar lañoki hartuko diagu eta agian, Mayi izanen duk, guretzat, bigarren haur bat.

ANDRE . - Hori da, aita, gure nahikundea ere, eta jada gisa hortarat mintzatuak gira Mayirekin.

NAUSIA . - Bon, milesker. Banihoak hemendik. Uzten haut hire lanari. *(Emeki eta luzaz behatzen du bulegoari. Semea xutitzen da... Apur bat ixilik... Aita jalitzen da nigar bat xukatuz)*

ANDRE . - *(Bakarrik. Apur bat ixilik)* Bere biziko lanetik betikotz urruntzea da pixka bat hiltzea. Gaixo aita ! *(Atea joiten dute)* Aintzinat ! *(Mayi agertzen da. Andrek lorietan errezebitzen du)* Agur Mayi ! Zoin tenore onean heldu ziren. Badut zernahi zuri kondatzeko.

MAYI . - Zertan zira aitarekin ?

ANDRE . - Hoberenean. Oraintxet aterara da hemendik. Gure antolamenduak egin ditugu. Oraindanik, ni naiz hemengo nausia.

MAYI . - *(Irriz, maleziarekin)* Beraz zu zira ene nausia ?

ANDRE . - Ba, eta zu ene etxeko anderea. *(Biak irriz)*

MAYI . - Nik ere berri on bat badut. Anaia arras ongi doala eta laster etxerat igorriko daukutela.

ANDRE . - Hobe, hobe. Eta aitari aipatu diozu enekin esposatzea ?

MAYI . - Ba, bainan ez du iduri holakorik onetsi nahi duela. Errepusta eman daut : Andreakin ezkondu ? Ikus eta sinets.

ANDRE . - Bon. Badakizu zer egin behar dugun ? Apur baten buruan dut zure aitarekin eta bere lagunekin, greba bururatzeko bilkura. Zu egonen zira prest bilkura akabatzean xanpaña zerbitzatzeko, eta orduan, denen aintzinean jakin araziko dugu gure ezkontzeko xedea.

MAYI . - O, Andre, agian elgarrekin ongi emanen dugu. Hain da berria eta handia ezkontzarekin hartuko dutan kargua, nun batzuetan beldur bainiz ez dudala aski zure gosturat beteko.

ANDRE . - Biek izanen dugu, Mayi, elgarren beharra eta biek eginen dugu ahal duguna. Baitezpadakoena izanen da, beti elgar maitatzea eta sustengatzea.

MAYI . - Iduritzen zait, zurekin, gure biziaz eginen dugula zerbait eder.

ANDRE . - Ba, eta agian, ene aitari bezala etorriko zaukularik lana uzteko tenorea, ez ditugu gure langileak greban izanen, bainan urus eta kantuz lanean ari.

MAYI . - Eta agian ere, ez gira orduan hotzean izanen zahar-gazteak gure familian.

ANDRE . - A ! Beharko ditugu peraxatze batzu egin, nik zure aitarekin.

MAYI . - Ba, eta nik zure aitamekin.

ANDRE . - (*Irriz*) Manobra handitako egunetan gira, behar baititugu zahar-gazteak elgarri josi eta gainerat langile-nausiak.

MAYI . - Ez du hain aspaldi, gu biak elgarrenganik urrun ginauden. Guk bat egin dugunaz geroz, ez bide da ezin-ahala, bestek ere bat egin dezaten.

ANDRE . - Bat egitea errex da, gizonek elgarri so egiten badute onezia gogoan. Bainan batasunik ez dagoke, gizonek partida jokatzen badute, bihotza gaxtakeriaz hazia.

MAYI . - (*Asaldatua*) O, Andre, zure ama ikusten dut hor heldu.

ANDRE . - Gure amodioaren izenean galdatzen dautzut, Mayi, egin ahalak egin ditzazun zuen arteko lokarrien leuntzeko. (*Mayik izerdia dariola ez daki nun koka. Dama atea jo eta sartzan da. Denak apur bat ixilik daude. Bi emaztek elgar besarkatzen dute. Biak nigarrez*)

ANDRE . - (*Apur baten buruan, irriño batekin*) Bon, ama, ez baitautazu behin ere arrebaño bat ekarri laguntako, nihaur izan naiz baten bilarat.

ANDRE . - (*Nigarrak xukatuz*) Mayi, ahantz ditzagun gure artean izan ditugun gorabeherak. Ez dut alabarik izan. Bainan esperantza dut amatzat onartzeko nauzula.

MAYI . - (*Herabeki*) Ba, etxeko anderea.

ANDRE . - "Etxeko andere" hori, Mayi ehortziko duzu betikotz, eta oraidanik erranen duzu "ba, ama".

MAYI . - (*Ahapetik*) Ba, ama.

DAMA . - Bon, ez baigira orai aski gure buruen jabe solasen ibiltzeko, uzten zaituztet bi-biak. Sarri egonen gira luzexago elgarrekin.

ANDRE . - Ongi da, ama. Sarri beraz elgarrekin afalduko dugu.

DAMA . - (*Jaliz*) Ba, horixe bera. (*Mayi eta Andre ixtaño bat irriz ari dira*)

ANDRE . - Ez dakit errex den alaba baten sortzea, bainan ikusi dut neke dela ama baten sortzea. Milesker Mayi, hoinbeste borondate on erakutsi baituzu ene amaren zuretzeko.

MAYI . - Sortzezko ama onartzeko ez nekerik. Sort-ondoko amak emaiten ditu lanak.

ANDRE . - Huna nun heldu zaigun gure jaun erretora. Segur naiz gure berri jakin nahian ibilki dela.

MAYI . - Ni banoa, Andre. Hola ez zaituztet trabatuko zuen solasetan.

ANDRE . - Ez, Mayi, zaude hemen. Ez zira soberakin, eta on da oraitik usaia har dezazun zure urratsen ibiltzeko ez nere zerbitzari bazine bezala, bainan izanen ziren nere espos-lagun bezala. (*Ateko zirrintza*) Aintzinat !

ERRETORA . - (*Sartuz*) Agur, adixkide onak. Ta ? Zertan dira zuen arteko gorabeherak ?

ANDRE . - Hoberenean jaun erretora. Gu biek egin koropiloa, aitamek tinkatzen ari zaizkigu.

ERRETORA . - Hobe, hobe. Joan den aldian, hemendik ateratzean, Izpiritu Sainduari otoitz bat egin nion, bakezko urtxoa, etxe huntarat jauts zadien.

ANDRE . - Urtxoa jautsi da, jaun erretora, eta denak bere kurrukaz eztitu ditu.

ERRETORA . - Jakin ditut ere, Mayi, zure anaiaren berri onak. Eta bietan kontent naiz zure anaiaren salbatzeko herri guziak bat egin baitu. Harritzeko da nola lagundu duten denek, kasik zoin gehiago bezala.

ANDRE . - Holako izpirituen batasun bera behar ginuke ere, jaun erretora, gure lantegiaren salbatzeko.

ERRETORA . - Ba, egia diozu. Izpiritua da denen zimendu. Ibil zaitezte goragoko ontasunen ondotik eta beherekoak ukanen dituzue gainerateko.

ANDRE . - Ez dakigu, Mayik eta nik, zer obratuko dugun ondoko egunetan, bainan nahi ginuke gure lantegiko moldetan bide berri bat ideki.

ERRETORA . - Nik dakitana da, ez dela Jainkoaren gustuko obrarik muntatzen, gurutzerik jasan gabe. Askok etsaigo beharko dituzue beraz bentzutu, zuen xedetarar heltzeko.

ANDRE . - Ba, Mayiri erraiten nion, nausi hainitz gure urrats berrien kontra izanen ditugula. Eni izanen dela heien ezteki gure molderat biltzea.

ERRETORA . - Ba, eta hainitz langile gidari ere zuen kontra izanen dituzue. Zuen molde berriekin alabainan, zuen langilek, nahitez, galduko dute nausien kontra gudukatzeko daukaten izpiritua. Eta, beste lantegietako lagunentzat, zuen langileak izanen dira desertur eta uko egile batzu.

ANDRE . - Nago nola beharko dugun gobernatu Mayik eta nik, gure etxean atea berdina zabalik egon daiten, ba nausi eta ba langilentzat.

ERRETORA . - Ez duzu hortaz buruhauste ibiltzerik. Mayi izan dadiela orai den bezala, eta zu, Andre, berdina. Erran nahi dut Mayi ez dadiela bilaka andere handi, zurekin esposatuz, eta ez zu ere jauts zure etorkizunari gomeni ez diren molde herresta batzuetarat. Ez zaitezte lot, ziminoak bezala, zuen maileko ez diren jenden, jestuen egiten. Elgar maita-azue beti orai bezala. Zuen bihotzak atxik-atzue beti idekiak munduari. Hori da molderik hoberena, nahi baduzue zuen etxeko atea beti nornahirentzat zabalik izan dadien.

OIHALA